

# OPORRAK BAKEAN

## Saharako errefuxiatu kanpalekuetatik Euskal Herrira, haize freskoaren miran

**I**raitz Lizarraga Gomezentzat lehen urtea da. Lehen urtea Saharako haur bat etxean hartu duena, bederatzi urteko Omari Hmatu Hussein. Zizurkildik ari da Euskal Herria deskubritzen. «Aurten pentsatu nuen Saharako haur bat hartzea. Jende askok esan dit 'aspalditik daukat buruan nik ere...'. Bada, nik ez, aurten pentsatu eta egin. Normalean horrela hartzen ditut nik erabakiak». Bidaia bizia izaten ari da Omari eta Iraitz elkarrekin egiten ari direna. Elkar ulertu nahian denbora dezente joaten zaie. «Emozionalki oso indartsua izaten ari da. Finean, Omari bere etxetik kanpo dagoen bederatzi urteko mutiko bat da, hizkuntza ez du kontrolatzen, ohitura eta kultura erabat berriak dira beretzat, bere etxeko ereduak ez dauka zerikusirik nire etxeko ereduarekin... Era berean, konturatzen naiz sekulako gaitasuna duela egoera berrira moldatzeko. Amaren falta sumatzen du, baina aldi berean gaitasuna dauka ondo pasatzeko, lagunekin jolasean ibiltzeko, uneaz gozatzeko...».

Iritsi zen egunean aztoratuta zegoen Omari, haserre antzera. Etxera bidean, Villabonako plazan Saharako emakume talde bat ikusi zuen. «Zuzenean joan zen haiengana eta hizketan eta hizketan hasi zen. Bera lasaitu egin zen, baita ni ere. Emakume haiek esan zidaten lasai egoteko, mutikoak esan ziela oso pozik zegoela hemen». Emakume haietako batek, Fatimak, segidan eman zion bere telefono zenbakia, edozer behar zuela ere. Eta hurrengo egunean dei-

📁 **JENDARTEA** / Amagoia MUJIKA TELLERIA

Uraren freskoa bizkarrean, hondar arrastoak oinetan, izozkiaren gozoa ezpainetan. Udak forma jakina hartu ohi du haurraren gorputzean. Saharako errefuxiatu kanpalekuetako 50 graduek lausotu egiten dute hori guztia. Aurten ere etorri dira bertatik Euskal Herrira, oporrak bakan pasatzera, freskoago eta osasuntsuago.

tu egin zion Lizarragari, Omari nola zegoen jakiteko. Omarik beste bost anai-arreba dauzka, bera laugarrena da.

Badute beste kontaktu bat edozein unetan laguntza eskatzeko. Salem izena du, saharrarra da eta hezitzaile eta itzultzaile lanak egiten ditu Oporrak Bakean programan. Maiz hizkuntza traba izaten da eta eskertzen dute Salemen laguntza. «Guretzat lasaigarria da. Niretzat lehen bi egunetan salbazioa izan zen Salem izaitea, ezin genuelako elkar ulertu Omarik eta biok. Haurrentzat ere lasaigarria da, batzuetan zerbait esan nahi digute eta ezin ulertu ibiltzen gara. Horrelakoetan Salemek laguntzen digu», kontatu du Lizarragak.

Omariren auzokoa da Hamdi Embarec Hamda. Dajla kanpalekuko umeak dira biak, auzoko lagunak. Hamdi Anoetara etorri da, Alazne Ruiz Luluaga eta Egoitz Luisa Urkolaren etxera. Bertan bizi dira Euri, Matixa eta Ximun ere. Etxean bat gehiago da Hamdi aste hauetan. Baina etxekoa lehendik ere bazen. 2016-2019 urteen bitartean, lau aldiz segidan etorri zen Anoetara Nurdin, Hamdiren anaia nagusia. «Guk Nurdin hartu genuen lehen aldiz 2016an, bikote modura, artean gure seme-alabak jaio gabe

zeudela. Askotan esaten dugu gure lehen semea izan zela. Orain Hamdi etorri da eta etxeko beste umeen artean moldatu behar du, bat gehiago da», hasi da azaltzen Alazne Ruiz. Hamdiren etxean lau anai-arreba dira. Bera, hirugarrena. «Nurdinen ondorengo arrebak etorri nahi zuen, baina pandemiagatik ezin izan zen. Hamdiren ondoren beste neska txiki bat dute etxean. Hura desiratzen dago etortzeko», azaldu du Egoitz Luisak.

Zergatik hartu harreran Saharako haur errefuxiatu bat? «Nik zalantzak neuzkan,

haurrentzat ona ote zen edo ez... baina lehen bilerara joan eta kanpalekuetan 50 gradura daudela entzun nuenean, pentsatu nuen 'etor daitezela hona, joango gara igerilekura eta hondartzara'. Informazioa jaso nuen eta erabakia hartu. Aste hauek behintzat freskoago pasa ditzala, ondo jan, mediku azterketak egin, haize pixka bat hartu... », esan du Lizarragak.

«Gure kasuan beti entzuten genuen Euskal Herriak, bere askatasun nahi horretan, bazituela herrialde senideak eta Mendebaldeko Sahara horieta



Lehen lerroan, Alazne Ruiz, Hamdi Embarec eta Egoitz Luisa. Bigarren lerroan, ezker-eskuin, Matixa, Ximun eta Euri.  
Jon URBE | FOKU


ko bat zela, gatazka bat bizi duen neurrian. Alazne eta biok bagenuen interes bat Euskal Herriarekiko gertukoak diren herri horiekin eta elkartasun internazionalistak dezente erakartzen gintuen. Egia da guk ere gure dilemak izan genituela; haur horiek handik hona ekarrita mesede egingo ote diegu, ez ote dizkiegu hemengo ohitura txarrak erakutsiko, errefuxiatu kanpaleku batean miserian bizi direnei zer transmitituko diegu... bagenuen kezka zer nolako ekarpena egingo genien haur horiei. Ez ote genituen haien herritik kanpora begira jarriko, handik kanpo mundua politagoa balitz bezala. Zalantza

**«Zalantzak neuzkan, haurrentzat ona ote zen edo ez... baina kanpalekuetan 50 gradura daudela entzun nuenean, pentsatu nuen ‘etor daitezela hona, joango gara hondartzara!’»**

**«Guk biok bagenuen interes bat Euskal Herriarekiko gertukoak diren herri horiekin eta elkartasun internazionalistak dezente erakartzen gintuen»**

askoren ondoren, erabaki genuen gure ekarpena egin genezakeela eta laguntza eskaini», gaineratu du Egoitz Luisak.

Nurdin 2016an etorri zen lehen aldiz Anoetara. Lau urtez segidan udak Alazne Rui-



Lerro hauen alboan, Iraitz Lizarraga eta Omari Hmatu. Aurten elkarrekin gozatuko dute udaz. Goiko irudian, Hamdi eta Omari haur errefuxiatu sahararrak.

Jon URBE | FOKU



zekin eta Egoitz Luisarekin pasatu zituen. Etxeko bihurtu zen, baita Nurdinen familia ere. Geroztik lotura estua dute. «Harreman berezia dauka gu familia horrekin. Batzuetan pentsatu izan dugu beste familia bateko haurren bat hartzeko aukera, baina familia horrekin daukagun lotura ez dugu galdu nahi. Arropa bidaltzen diegu, tarteka janari erosketa handi bat... beraiek gurekin kontaktzen dute», azaldu du Ruizek.

«Errefuxiatuen kanpalekue-tara joan ginenean, ikusi genuen hemen bezala han ere egoera desberdinak daudela familien artean. Nurdinen familia ez zegoen egoera onean, amak eta ahizpak ez zuten ondoan gizezkorik, etxera dirua ekarriko zuenik, eta egoera zaurgarrian zeuden. Guk urtean zehar Sahararen aldeko kanpaina guztietan parte hartzen dugu, baina gure familia honekin badugu tratu berezi bat eta saiatzen gara ahal den neurrian laguntzen», esan du Luisak.

Iraitz Lizarraga ari da pixkaka Omariren familiarekin harremana josten, baina ez da oso erraza izaten ari. «Bideo

deiren bat egin dugu, baina asko kostatzen zaigu elkar ulertzea. Omarik amarekin hitz egiten du, beharra dauka. Nire inguruko lagunek arropa pila bat eman zidaten Omarirentzat. Hantxe neukan etxean, ez baineukan garbi zer neurritakoa beharko zuen. Etorri zenean eta esan nionean arropa hori beretzat zela, harrituta geratu zen, oso pozik. Ni konturatu gabe mugikorra hartu, arropari argazkia atera eta amari bidali zion. Jatekoarekin ere asko gozatzen du. Izugarri jaten du. Atzo erosketak egitera joan eta txokolate tableta handi-handiak ikusi zituen eta harrituta geratu zen. Hondartzan ere asko gozatu zuen», dio Lizarragak.

Hamdiri bizikleta da oraingoz gehien gustatu zaiona. «Bere anaia Nurdin bederatzi urterekin etorri zen eta Hamdik 13 dauzka. Desberdintasuna sumatzen da, Hamdik lasaiago hartzen du dena. Gainera, anaiak kontatuta, gauza asko badakizki. Nurdinek argazki album handi bat eramane zuen hemendik etxera eta seguru askotan ikusi dutela. Horrez gain, gaur egun sareak eskurago dituzte eta



badakite hemen nola den bizitza gutxi edo gehiago. Adibidez, igogailuak arreta eman zion Hamdiri etorri zen lehen egunean».

Tindufeko kanpalekuetan uda sasoian egiten duen bero latzetik ihes egiteko bide bat da Oporrak Bakean programa. Era berean, haur sahararren

osasuna zaintzeko aukera bat ere bada. Hartara, mediku azterketak egiten dizkiete haur guztiei, osasunez nola dauden ikusteko. Pisua, altuera, bista, entzumena, odol analisiak, dentista... «Normalean osasuntsu egoten dira. Hamdiren kasuan, hortzetan arazo batzuk ditu eta dentistarenean

gabiltza. Oinarrizko tratamendua egiten saiatuko gara, udan ez baita erraza izaten kontsultak lotzea. Normalean hortzetako arazoengatik ez da luzatzen egonaldia. Bestelako osasun arazo larriago batzuen ondorioz luzatu izan dira haurren egonaldiak», azaldu du Ruizek.

#### IGERIKETA IKASTAROA

Tolosako kiroldegian igeriketa ikastaroa egiten ari dira Omari eta Hamdi, eskualdean dauden Saharako gainerako haurrekin batera. Handik etorri dira elkarrizketara bi familiak. «Garrantzitsua da igeri ikas- tea. Normalean, ez diote ezeri beldurrik, oso haur biziak eta

## «GURE AMETSA MENDEBALDEKO SAHARA LIBRE HORI DA. BITARTEAN, ERREFUXIATUEN ONDOAN EGONGO GARA»

Oporrak Bakean programako arduradunetako bat da Eli Eizagirre. Aurten hasiera korapilatsua izan du harrera programak, haurrak 17 egun beranduago iritsi baitira. «Uste genuen dena ondo zegoela, baina egun gutxioren faltan, esan ziguten Estatu espainolera etorri behar zuten haurren hainbat pasaporte kolektibo egin gabe zeudela eta horrek esan nahi zuela hegazkin guztiak bertan behera geratzen hasiko zirela, gureak barne. Hegazkin bidaia guztiak berriz programatu behar izan ziren eta, ondorioz, haurrak 17 egun beranduago iritsi dira», azaldu du Eizagirrek. Paper kontuak. Hain justu, horiek sortzen diete buruko min gehien.

«Oporrak Bakean programaren zailtasun handiena paper kontuak dira. Batzuetan ematen du haurrak bi hilabetez harreraren hartzea eta horretarako familiak topatzea dela lanik zailena, baina benetan zailak pauso burokratikoak dira. Erakunde asko daude tartean: hemen, aldundiak, espainiar Ordezkariordeztza, Osakidetza... eta, han, Fronte Polisarioaren eskutik, Aljeriako enbaxada, Aljeriako Kanpo Ministerioa, Espainiak bertan duen enbaxada... paper mordoa egin behar da. Ikusten ez diren lanak dira, baina urte osoko lana da guretzat, programako arduradunontzat. Ez da erraza harrera familiei hori guztia azaltzea, eta are zailagoa da han zain

dauden haur sahararrei azaltzea zergatik oraindik ezin duten hegazkina hartu. Prozesua oso zaila da», jarraitu du azalpena.

Abuztuaren 27-28an agurtuko dituzte haurrak. «Bizpahiru eguneko atseden mentala hartu eta aurtengo balorazioak egiten hasiko gara; hemengo familienak, hango familienak, haurrenak... Herrialde mailako balorazioak ere egiten ditugu. Hortik aurrera, urriaren hasieran datorren urteko kanpaina prestatzen hasiko gara. Berriro martxan».

Aurten 311 neska-mutiko etorri dira Hego Euskal Herrira, 10 eta 12 urte artekoak gehienak. Badaude salbuespenak, behar jakinengatik gazteagoak edo zaharagoak ere etortzen dira, baina gehien-gehienak 10-12 urte bitartekoak dira eta programaren helburua da hiru urtez segidan etortzea Euskal Herrira uda pasatzera. «Berez Oporrak Bakean programa 8-12 urte bitarteko haurrentzat pentsatua dago. Pandemiaren ondoren, oso ondo hasi zen funtzionatzen zortzi urteko haurrekin. Baina arazoa da ez dagoela harrera familia nahikorik eta adina mugatu behar izan da».

Estatu espainoleko datuak esanguratsuak dira. Duela 15 urte 10.000 haur hartzen ziren harreraren errefuxiatu kanpalekue- tatik; bat- batean 8.000 haurrer- ra jaitsi zen kopurua eta, aurten, 3.000 eskas iritsi

dira. «Haurrak badaude, harrera familiak falta dira».

Harrera familiak ez dira aukera bakarra. Aterpetxeetan ere hartzen dituzte Saharako haurrak. «Berez Oporrak Bakean programa aterpetxeetan hasi zen Euskal Herrian. Lehen aldiz Donostiara eta Gasteizera etorri ziren haurrak 1986an. 1986-1994 urte bitartean, soilik aterpetxeetan egoten ziren haurrak. 1994-1995 urteetatik aurrera hasi zen harrera familien kontzeptua zabaltzen. Familiak aterpetxe horietara bisitan joaten ziren, haurrak ezagutzen zituzten, haiekin planak egiten zituzten... Urte haietan harrera familia asko sortu ziren Euskal Herrian, oso mugimendu indartsua izan zen. 2008-2009 urte inguruan berriz aterpetxeak antolatzen hasi behar izan genuen, harrera familiak gutxitu zirelako».

Harrera familiak edo aterpetxeak? «Ez dakit esaten, aukera desberdinak dira. Ni oso aterpetxe-zalea naiz. Neroni begirale izan naiz hamar urtean aterpetxe horietan eta orain harrera familia naiz. Bi aukerak oso baliagarriak eta lagungarriak dira. Harrera familiak behar ditugu, urtez urte gutxiago ditugulako. Era berean, harrera familien bidez Oporrak Bakean programak daukan helburu garrantzitsuenetako bat betetzen da: Saharako herriaren egoera ezagutzera ematea. Harrera familiek Saharako herriaren egoera ezagutzen dute eta,





ausartak dira», azaldu du Ruizek.

Abuztuan oporretan joango dira familian Hamdi eta Omarri, bakoitza Euskal Herriko bere familiarekin. «Gure seme-alabek oso pozik jaso dute Hamdi. Etxean asko bizi dugu Saharako herriaren errealitatea eta oso presente daukagu.

Aurten lehen aldiz harrera programan parte hartu du Zeraingo aterpetxeak. Bertan ari da udaz gozatzen haur sahararren talde bat. Herriaren harrera izugarria izan da.

Jaizki FONTANEDA | FOKU

Maiz hitz egiten dugu Saharako familiaz, argazkiak ditugu etxean, bideodeiak egiten ditugu urtean zehar... », kontatu du Luisak.

Saharako haurrak omen dira bere herriko enbaxadore onenak. «Haurrek presente daukate beren herriaren errealitatea. Horrez gain, he-

men gure herrietan haur horiek ikustean Saharak bizi duen errealitateaz akordatzzen gara berriro», esan du Ruizek. «Nurdirin etorri zenean, mendira joan eta hemen belar asko dagoela esaten genion, ez Saharan bezala. Eta bere erantzuna izaten zen 'Sahara-Saharan belar asko'. Eta hondartza-

ra joan eta itsasoa ikustean, 'Sahara-Saharan hondartza handi-handiak' esaten zuen. Hasieran ez genion ulertzen, baina gero ulertu genuen zer esan nahi zuen: Mendebaldeko Sahara, Marokok okupatu zuen lurra zeukan buruan, hori ari zen deskribatzen 'Sahara-Sahara' esaten zuenean, bene-



era berean, beren inguruko sarean zabaltzen dute informazioa. Eta programaren helburu nagusietakoa hori da; haurrak berotik babestera datoz, medikuarenetik pasatzera, ondo elikatzerara... baina era berean haurrak bidelagunak topatzera ere badatoz. Aurten 50 urte beteko dira errefuxiatu direla eta erraz esaten da. Oporrak Bakean horretarako ere sortu zen, saharar herriaren berri munduari zabaltzeko», azaldu du Eizagirrek.

Aterpetxeak helburu horiek ere betetzen ditu, baina baditu beste tasun batzuk. «Haurrak taldean mugitzen dira eta horrek ikusgarritasun handia ematen die. Aurten Zerainen jarri da martxan proiektua lehen aldiz eta Zeraingo herria erabat Saharako herriarekin bat eginda dago. Bizikidetzaz izugarri ederra izaten ari da eta zeraindarrek asko laguntzen diete».

Haurren ikuspegitik ere badira desberdintasunak harrera familian egon edo aterpetxean egon. «Taldeen daude eta hizkuntzarekin ez dute arazorik elkar ulertzeko. Hasieran ezezagunak izan arren, lagunartea sortzen dute segituan. Familietan dauden hurrek euskara eta gaztelera errazago ikasten dituzte. Aterpetxean daudenek beste balio batzuk jasoko dituzte; adibidez, neskek eta mutilak elkarrekin jolas dezaketela, elkarrekin bazkaldu, eta elkarrekin bizi daitezkeela. Beren kulturaren oso desberdina da hori».

Oinarritzko osasun frogak egiten zaizkie hurrei. «Kasu batzuetan betaurrekoak behar dituztela konturatuko gara, beste batzuetan belarrietako tapoiak kendu... kasu oso

berezietan osasun arazo larrixegoak ere deskubritu izan dira. Horretara ere etorri dira, artatu eta gaixotasun horiek sendatzeko bidean jartzera. Osasun egoera onean iristen dira. Askok anemia izaten dute, baina lauzpabost otordu on janda, desagertu egiten da. Pisuz eta tamainaz askoz txikiagoak etortzen dira, baina normalean hiruzpalau kilo gehiagorekin bueltatzen dira. Uda kanpalekueetatik kanpo pasatzeak berak osasuna ematen die. Urarekin jolasean aritzea, ur gehiago edan ahal izatea, elikadura hobea izatea, osasun arazo txikiak sendatzea... denek irabazten dute osasunean».

Igeriketa ikastaroak, piraguan ibiltzea, itsasoan hainbat ekintza... haur sahararrek ondo pasatzen dute eta euskal herriarrek ikusi egiten dituzte haur horiek, herri baten bizipoza eta mina begien aurrean. «Bihotzez desio dudan eta sinisten dudan gauza bat nabarmendu nahi nuke: aurten azken urtea izan dadila. Gure ametsa da datorren udarari begira, beraiekin batera Mendebaldeko Saharako hondartzetan piraguan ibiltzea, igeri egitea, itsasoan gozatzea... gure ametsa da Mendebaldeko Sahara libre hori ezagutzea eta gozatzea. Bitartean, haien ondoan egongo gara. Errefuxiatuak diren bitartean eta kanpoko laguntza behar duten bitartean, beraien ondoan jarraituko dugu. Ahalik eta harrera familia gehien lortzen saiatuko gara, ahalik eta haur gehienera kanpalekueetatik ateratzeko aukera emateko».

Harrera familia izateko baldintzak: gogoa eta denbora izatea ([oporrbakean.eus](http://oporrbakean.eus)).

tako Sahara beretzat. Kanpalekue-  
tan egon ginenean, Sahara-  
ko hondar pixka bat hartuko  
genuela esan eta, Nurdinen  
amonak ‘hau ez da Sahara, hau  
Aljeria da’ esan zigun». Jaiotze-  
rako existitzen zen gatazka ba-  
ten gainean hazi dira Saharako  
haur errefuxiatuak, baina pre-  
sente daukate beren herriak  
bizi duen zapalkuntza.

SAHARA, LEHEN LERRORA

Haur errefuxiatu sahararrak  
harreran hartzeko ekimenak  
ia lau hamarkada osatu ditu.  
Harrera familia batzuek gura-  
soak hartu zituzten lehendabi-  
zi eta haien seme-alabak, on-  
doren. Bilobak hartu behar ez  
izatea da erronka. «Guk beti  
esaten dugu aurtengoa azken  
Oporrak Bakean programa iza-  
tea nahi genukeela. Saharako  
herriak bere lurak berreskura-  
tu eta joango gara gu oporreta-  
ra Mendebaldeko Saharara.  
Baina ez dadila haurren beha-  
rrengatik izan, gozamenez bai-  
zik».

“Gure haurrak era badira”,  
gogorarazten du Palestinaren  
aldeko ekimenak. Saharakoak  
ere badira gure haurrak, baina  
mende erdia errefuxiatuta da-  
raman herriaren errealitateak  
lehen lerroa galdu ote duen,  
hori da susmoa. «Kanpalekuak  
egonleku bihurtzearen beldu-  
rra badute sahararrek. Argin-  
darra iritsi da, hozkailuak di-  
tuzte, haize egokitua... baten  
batek pentsa dezake ez daude-  
la hain gaizki. Eta egoera hori  
normalizatzea arriskutsua  
da», iritzi dio Ruizek.

Udan gure herrietan Sahara-  
ko haurrak plazan jolasean  
ikustea akuilu izan daiteke  
kontzientziak astintzeko, haur  
horiek errefuxiatuak direla go-  
gorarazteko. «Gero urtean  
zehar Sahararen alde antola-  
tzen diren ekimenetan parte

«Kezkagarria da gaur, egunero sekulako  
albisteak dauden mundu globalizatu honetan,  
nola ari garen ahazten gugandik ez hain urrun  
errefuxiatuen kanpaleku izugarri bat dagoela»

«Jarrai dezagula herri aske bateko haurrak  
beste herri aske bateko haurrekin elkartzen,  
baina ez dadila izan errefuxiatu kanpalekuen  
baldintza kaskarrek bultzatuta»

hartzen dute herritar askok,  
dagoeneko aurpegia jartzen  
diotelako bertako haurren  
errealitateari, udan ezagutu  
dituztelako. Ikusgarritasuna

ematen die Saharako haurrei,  
hezur-haragizkoak direlako,  
ez pareta batean jarritako kar-  
tel bat bakarrik. Kezkagarria  
da gaur egun, egunero sekula-



Irudian, Hamdi sahararra  
eta Matixa euskal  
herritarra. Aurten uda  
elkarrekin pasatuko dute.  
Jon URBE | FOKU

ko albisteak dauden mundu  
globalizatu honetan, nola ari  
garen ahazten gugandik ez  
hain urrun errefuxiatuen kan-  
paleku izugarri bat dagoela.  
Eta ez dirudi konpontzeko gai  
garenik. 50 urte daramate  
egoera horretan, badituzte  
Nazio Batuen Erakundearen  
aldeko sententziak, badituzte  
arrazoia ematen dieten arau-  
bideak eta legeak, baina ez di-  
ra gauzatzen, haien egoera ez  
da konpontzen. Etsipena hor  
dago», nabarmendu du Lui-  
sak.

Haurrak haur dira mundu-  
ko bazter guztietan. Berezkoa  
dute pozik bizitzeko jarrera.  
«Saharako haurrak ez dira  
oharkabeen pasatzen herriko  
plazetan. Oso alaiak dira, ka-  
lea asko gustatzen zaie, jolas-  
teko gogoz daude beti...»,  
esan du Ruizek. Uda bukatuta  
etxera bueltatuko dira, erre-  
fuxiatuen kanpalekura. «Pen-  
tsa nora bueltatu behar du-  
ten, baina garbi daukate  
buelatu egin nahi dutela, hu-  
ra dela beren etxea. Hemen  
denetik dute, oso ondo pasa-  
tzen dute, baina hangoak dira  
eta hara bueltatu nahi dute.  
Sentimendu hori oso barruan  
daukate», jarraitu du.

«Omarik ere oso presente  
dauka Sahara. Bere obsesioa  
da hemengo gauza denak  
Saharara eramatea, eta bera  
ere hara bueltatzea, noski. Po-  
zik dago hemen, baina egute-  
gian apuntatzen ditu buelta-  
tzeko falta zaizkion egunak».

Azkena izan dadila. «Jarrai  
dezagula proiektu honekin,  
herri aske bateko haurrak  
beste herri aske bateko hau-  
rrekin elkartzen, baina ez da-  
dila izan errefuxiatu kanpale-  
kuen baldintza kaskarrek  
bultzatuta», amaitu du Egoitz  
Luisak. Buelatu daitezela  
Sahara-Saharara.